

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Kirolari federatu ez-profesionalentzako kirol arloko dirulaguntzen deialdia

Korporazio honek 2025eko urriaren 8an balio osoz egindako osoko bilkuran, kirolari federatu ez-profesionalentzako kirol arloko dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak onetsi zituen. Gai horren gainean hartutako erabakia betez, ALHAOn argitaratzen dira aipatutako oinarriak, objektibotasun, lehia eta publizitate printzipioak bermatzeko.

Gaubea, 2025eko urriaren 29a

Alkate-lehendakaria
GORKA SALAZAR SENSO

Kirola jardueretarako kirolari federatu ez-profesionalei dirulaguntzak emateko oinarriak

1. artikulua. Oinarriak

Gaubeako Udalak uste du kirol jarduerak egitea biziki garrantzitsua dela pertsonen garapenerako eta, beraz, haiek bultzatzea helburutzat hartu behar dela.

Hori sustatzeko modu bat da Gaubeako udalerrian erroldatuta dauden pertsonen dirulaguntzak ematea kirola egin dezaten. Kirola eta kirol jarduerak antolatzea eta sustatzea eta erabilera publikoko kirol ekipamenduak kudeatzea Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.19) artikuluan zerrendatzen diren udal eskumenen artean dago.

2. artikulua. Xedea eta helburua

Deialdiaren xedea da udalerrian erroldatuta dauden eta kirol federatu ez-profesionala egiten duten pertsonen dirulaguntzak ematea probintziako, autonomia erkidegoko, estatuko edo nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko.

3. artikulua. Araubide juridikoa

1. Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzak oinarri hauetan ezarritakoaren eta honako araudi honetan xedatutakoaren arabera arautuko dira:

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Araudia onartzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- Gaubeako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorra.
- Aurrekontua gauzatzeko oinarriak.

2. Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emango dira, deialdi ireki bidez, aurrekontu kreditua agortu arte. Dirulaguntzak printzipio hauen arabera emango dira:

- Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibitatea, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.
- Ezarritako helburuak eraginkortasunez betetzea.
- Baliabide publikoak eraginkortasunez esleitu eta erabiltzea.

3. Dirulaguntza eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak ezagutu eta onartu egiten dituela oinarri hauek, Gaubeako Udalaren dirulaguntzak arautzeko ordenantza orokorra eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta baita horrelako dirulaguntzei aplikatu beharreko arau guztiak ere, bai zuzenekoak, bai subsidiarioak.

4. artikulua. Aurrekontuko zuzkidura

Gaubeako Udalak ekitaldi bakoitzean aurkeztutako eskaerei erantzuteko nahikoa den zenbateko bat xedatuko du, dagokion aurrekontu partidaren kontura. Ezingo da dirulaguntzarik eman horretarako aurrekontu esleipenik egin gabe.

5. artikulua. Hartzaileak

Onuradun izango dira banakako kirolariak, federatuak eta ez-profesionalak, probintziako, autonomia erkidegoko, estatuko edo nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzen dutenak, salbu eta udal honek diruz lagundutako talde bateko kide badira. Beste udalerri bateko talde batekin parte hartzen duten kirolariei ere ez zaie dirulaguntzarik emango, udalerrian kirol modalitate horretako talderik badago

6. artikulua. Eskatzaileen betekizunak

Eskatzaileek honako betekizun hauek bete behar dituzte:

- Gaubeako udalerrian erroldatuta egotea, gutxienez urtebeteko antzintasunarekin. Antzintasunak eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean egon beharko du beteta.
- 2024-2025 denboraldian legez federatuta egotea eta kirolari profesionala ez izatea.
- Gaubeako Udalarekiko zerga betebeharren ordainketa egunean edukitzea deialdi hau behin betiko ebazten den arte. Horretarako, zuzenbide publikoko diru sarreren ondoriozko edozein zor hartuko da kontuan, salbu eta geroratuta edo zatikatuta dauden zorrak edo zehapenak badira edo haien betearaztea etenda badago. Eginbehar hori adin txikikoen edo lege ezgaitutako pertsonen tutoretza daukaten pertsonen ere aplikatzen zaie.

7. artikulua. Eskaerak

1. Eskaerak I. eranskineko eredu ofizialean aurkeztu behar dira, eta letra larriz bete behar dira, argi eta erraz irakurtzeko moduan. Eskaerak tutoreek sinatuko dituzte eskatzaileak adingabeak edo lege ezgaitutako pertsonak izanez gero.

2. Eskaerak aurkezteko epea: 2025eko abenduaren 31ra arte.

3. Aurkezteko modua:

- Aurrez aurre udal bulegoetan, jendea hartzeko orduetan (09:00-15:00).
- Telematikoki, web orriko egoitza elektronikoaren bidez: www.valdegovia.eus.

4. Eskaerari erantsi behar zaion dokumentazioa:

- Federazio lizentzia edo, eskola kirola bada, eskatzailea kide den klubaren ziurtagiria.
- Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

5. Eskaera aurkeztean eskatzaileek hau onartzen dute:

Eskaerako datuak udal erroldarekin gurutzatzea, jakiteko ea eskatzailea eta, hala badagokio, tutoreak Gaubeako udalerrian erroldatuta dauden.

Datuak Udalaren dirubilketa zerbitzuekin gurutzatzea, jakiteko eskatzaileak edo, hala bada, tutoretza dutenak, zerga betebeharren ordainketa egunean duten.

8. artikulua. Eskaerak aztertu eta ebaztea

Aurkeztutako dokumentazioa osorik ez badago, 10 eguneko epea emango zaio eskatzaileari hura osatzeko. Gainera, ohartaraziko zaio ezen, epe hori igarota dokumentazioa osatuta aurkeztu ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, betiere dagokion ebazpena eman ondoren.

Dirulaguntzak udalbatzak emango ditu, osoko bilkuran jorratu beharreko gaien informazio batzordeak proposatuta.

9. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa

100,00 euro eskaerako. Pertsonako eskaera bakarra onartuko da.

10. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira eskatzaileak helburu b ererako jasotzen duen beste edozeinekin. Hala ere, udal honek emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik nahiz beste administrazio, erakunde edo organismo publiko batzuek emandako dirulaguntzekin batera, ezingo da inola ere izan ikasketak egiten ari den pertsonak egindako jardueraren kostua baino handiagoa.

Dirulaguntza hauek bateraezinak dira udalak eskatzailea kide den taldeari eman diezazkiokeenekin. Hortaz, udalak taldeari dirulaguntza bat ematea aurreikusten badu, parte hartzaileak bere izenean aurkeztutako eskaera ukatuko du.

11. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea

Dirulaguntza epe bakarrean ordainduko da, ebazpena eman ondoren.

12. artikulua. Dirulaguntzen kontrola eta justifikazioa

Bat etorritik Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan 7. apartatuan xedatutakoarekin, kirol federaturako dirulaguntzak emateko, eskatzaileak edo, hala badagokio, tutoreak deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko da aldez aurretik.

Alabaina, pertsona onuradunak udalari jakinarazi beharko dizkio kontzeptu honetarako eskuratzen dituen beste laguntza edo dirulaguntza batzuk, haiek jasotzen dituen unean.

Laguntzen jasotzaileei aplikatu beharreko itzulketak, zehapenak eta erantzukizunak arautzen dituen araubidea Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta Gaubeako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzak ezartzen dutena izango da.

13. artikulua. Arau hausteen eta zehapenen araubidea

Arau hauste eta zehapen administratiboei dagokienez, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 52. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa eta dirulaguntzak eta laguntzak ematea arautzeko udalak onetsitako ordenantza xedatutakoa beteko da, eta ordenantza horretan agintzen denaren arabera ezarriko dira zehapenak.

14. artikulua. Legeria osagarria

Oinarri hauetan aurreikusita ez dauden alderdietan, dirulaguntzen eta laguntzen emakida arautzeko udalak onetsitako ordenantza xedatutakoa beteko da, bai eta Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta hura garatzen duen araudian xedatutakoa ere. Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

ERANSKINA

Kirolari federatu ez-profesionalek kirol jarduerak gauzatzeko dirulaguntza eskaera

Izen-abizenak edo sozietatearen izena		NAN-AIZ-IFZ	
Ordezkaria (izen-abizenak)		NAN-AIZ-IFZ	
Komunikazio-jakinarazpenerako datuak			
Kalea	Zk.	Solairua	Herria
Posta kodea	Udalerria	Probintzia	
Posta elektronikoa	Telefono zk.	Mugikor zk.	

ADIERAZTEN DUT

..... (e) an federatuta dagoela, eta ez dela kirolari profesionala.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denerako gutxienez urtebeteko antzinatasuna izango duela udalaren biztanle erroldan.

Udalarekin dituen zerga betebeharrak egunean dituela. Adingabeen edo tutoretzapekoen kasuan, betebeharrak hori tutoretza duten pertsonen aplikatuko zaie.

Xede bererako beste dirulaguntza batzuk eskatu dizkiola..... (r)i; hain zuzen ere,euro.

EZ duela xede bererako beste dirulaguntzarik eskatu.

ESKATZEN DUT

Kontuan hartzeko deialdia ebazteko orduan eta dagokion dirulaguntza emateko.

Data eta sinadura:

DATUEN BABESA	
Arduraduna	Gaubeako Udala
Helburua	Hainbat jarduerak sustatzeko dirulaguntzak ematea
Hartzaileak	Bildutako datuak Dirulaguntzen Datu base Nazionalari lagako zaizkio. Ez da beste lagapenik egingo, legeko betebeharrak izan ezean
Eskubideak	Interesdunak bere eskubideak baliatu ahal izango ditu Gaubeako Udalean (Jesús Guinea arkitektoa kalea 46, 01426 Gaubea). Datuak legez agindutako moduan gordeko dira, datuen helburuaren arabera. Datuak ez dira erabiliko erabaki automatizatuak egiteko